Las larvas se desarrollan sobre *Juniperus* y *Cupressus*. Viven debajo de la corteza y penetran al interior de la madera para pupar. allí pasan el invierno en forma de adulto, para salir al exterior en primavera. Según algunos autores, su ciclo biológico dura 18 meses.
Es muy escasa en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

CARABIDAE

## *Poecilus kugelanni*

Panzer, 1797



Luzera: 10,5-14,5 mm.

Ia urte guztian aurki daiteke, baina batez ere udaberrian eta udan.

Goiko aldea bi koloretakoa dute. Burua eta pronotoa kobre kolorekoa ditu. Ondo nabermendutako ildo batzuk ditu bere elitro berdeetan. Antenetako lehenengo bi giltzarteak gorriskak. Genero honetako beste espezie batzuekin parekatuz gero begi oso handiak ditu.

Iberiar Penintsulan oso zabaldua dago espezie hau.

Gipuzkoan urria da.

Longitud: 10,5-14,5mm.

Se puede encontrar durante casi todo el año, pero sobre todo en primavera y verano.

La parte superior es de dos colores. La cabeza y el pronoto de color cobre. Los élitros verdes con varias estrías bien marcadas. Los dos primeros artejos de las antenas rojizos. Los ojos son grandes, comparados con los de otras especies de este género.

Esta especie está bien distribuida por toda la Península Ibérica.

Es escasa en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

CHRYSOMELIDAE

## *Chrysolina polita*

(Linnaeus, 1758)



Luzera: 6,5-8,5 mm.

Udaberritik udazkenera aurki daiteke.

Buru txikia eta pronotoan sartua. Begi handiak eta antena luzeak. Burua, pronotoa eta hankak berde disdiratsuak. Elitroak obalak, gorrantzak eta puntuazio fin batekin.

Krisomela honek leku umelak gustoko ditu. *Melissa, Lycopus, Salvia, Oreganum, Glechoma, Nepeta...* generoetako ezpaindun desberdinetaz elikatzen da.

Gipuzkoan urria da.

Longitud: 6,5-8,5 mm.

Aparece de primavera a otoño.

Cabeza pequeña y encajada en el pronoto. Ojos grandes y antenas largas. Cabeza, pronoto y patas de color verde metálico. Élitros con forma oval y de color rojo mate con puntuación fina.

Esta crisomela frecuenta lugares húmedos. Se alimenta de diferentes labiadas de los géneros *Melissa, Lycopus, Salvia, Oreganum, Glechoma, Nepeta...*

Es escasa en Gipuzkoa.



COLEOPTERA

LUCANIDAE

***Sinodendron cylindricum***

Linnaeus, 1758

Luzera: 4,6-5,5 mm.
Urte osoan aurki daiteke.
Beltza. Zilindro itxurakoa eta arrek buruan adar bat dute.
Larbaren garapenak hiru urte irauten du, eta garapen hau enbor edo zuhaitz ipurdi ustelduetan gertatzen da. Helduak udazkenean jaiotzen dira eta negua egur barruan ematen dute.
Beti pagadiei lotuta agertzen da eta Europa osoan zabalduta dago.
Gipuzkoan urria da.

Longitud: 12-16 mm.
Se puede encontrar durante todo el año.
De color negro. Tiene forma cilíndrica y los machos tienen un cuerno en la cabeza.
Las larvas se desarrolan en troncos y tocones podridos de hayas y su desarrollo dura tres años. Los adultos eclosionan en otoño y pasan el invierno dentro de la madera.
Distribuido por toda Europa, siempre ligado a los hayedos.
Es escasa en Gipuzkoa.



COLEOPTERA

MALACHIIDAE

***Malachius bipustulatus***

(Linnaeus, 1758)

Luzera: 5,5-6 mm.
Udaberria eta udan aurki daiteke.
Kolore berde edo berde metaliko disdiratsukoak dira. Buruaren aurrealdea, pronotoaren aurreko angeluak eta elitroen muturrak, gorriak.
Helduak, egun eguzkitsuetan loreetan aurkitzen dira, non polenaz elikatzen diren.
Larbak, enbor ustelduetan edo enbor-azalpean dauden intsektu txikiez elikatzen dira.
Gipuzkoan oso urria da.

Longitud: 5,5-6 mm.
Los adultos se pueden encontrar en primavera y verano.
De color verde a verde dorado metálico. Parte anterior de la cabeza, ángulos anteriores del pronoto y extremos de los élitros, rojos.
Los adultos se encuentran sobre las flores en días soleados, donde se alimentan de polen.
Las larvas comen insectos pequeños en la madera podrida y bajo la corteza.
Es muy escasa en Gipuzkoa.

HETEROPTERA

MIRIDAE

## *Orthotylus ericetorum ericetorum*

(Fallén, 1807)



Luzera: 2,6-3,8 mm.

Erikazeoei lotuta bizi da, populazio isolatuetan. Generoaren gainontzeko espezieen antzera, elikadura mistoa darama (fitofagia eta zoofagia). Negua arrautza moduan igarotzen du.

Euskal Herrian aurki daitezkeen landareetako zimitza berdeetan, txikienetako bat, *Orthotylus* genero zabalaren barruan sailkatuta dagoena. Aparatu zurgatzaile oso luzea eta ile ilunak ditu bereizgarriak. Aldakortasun handiko espeziea izanik, subespezie anitz deskribatu dira, horietatik batzuk gaur egun balio taxonomikorik gabeak direnak.

Gipuzkoan urria da.

Longitud: 2,6-3,8 mm.

Vive ligado a las ericáceas, en poblaciones aisladas. Como el resto de especies del género, probablemente lleva una dieta mixta (fitofagia y zoofagia). Pasa el invierno durante el estadio de huevo.

Uno de los chinches verdes de las plantas más pequeños del País Vasco, perteneciente al extenso género *Orthotylus*. Posee un aparato succionador muy largo y pilosidad oscura. Especie con una alta variabilidad; se han descrito unas cuantas subespecies, algunas sin valor taxonómico en la actualidad.

Es escasa en Gipuzkoa.

HETEROPTERA

MIRIIDAE

## *Phytocoris varipes*

Boheman, 1852



Luzera: 5,8-7,5 mm.

Udaran zenbait landare belarkaretan bizi den zimitz oso aktiboa, maiz *Callunetum* motako landare-komunitateetan. Landare-dibertsitate altuko belardi itxi batzuetan aurkitu da.

*Phytocoris* Europako generorik aberatsenetako bat da, espezie-kopuruaren aldetik. Euskal Herrian, lurralde hezeetan bereziki, *P. varipes* da espezierik usuena. Generoaren bereizgarritzat har daiteke atzeko hanken luzera handia, zeinak mugimenduetarako askatasun zabala ematen baitio.

Gipuzkoan arrunta da.

Longitud: 5,8-7,5 mm.

Chinche muy activo que vive en verano sobre diversas plantas herbáceas, con frecuencia en comunidades vegetales del tipo *Callunetum*. Se ha encontrado en prados densos y con alta diversidad florística.

En Europa, el género *Phytocoris* es uno de los más ricos en cuanto al número de especies En el País Vasco, *P. varipes* es la especie más frecuente, sobre todo en lugares húmedos. La longitud de las patas es una de las características de este género, lo que les da mucha facilidad de movimiento.

Es común en Gipuzkoa.



HETEROPTERA

MIRIDAE

## *Pinalitus cervinus*

(Herrich-Schaeffer, 1841)

Luzera: 3,8-4,4 mm.

Urteko belaunaldi bakarra izaten du eta helduak uztailetik aurrera bizi dira; hala ere, udaberrian ale hibernatzaileak aurki daitezke, negua heldu modura igarotzen du eta. Mota askotako zuhaitz eta zuhaixka hostogalkorretan bizi da.

Mirido txikia, disdiratsu samarra eta aldakortasun kromatiko nabarmenekoa. Iraganean nahasi egiten zen eta berriki taxonomi aldaketak jasan dituen genero multzo bateko ordezkaria da.

Gipuzkoan urria da.

Longitud: 3,8-4,4 mm.

Presenta una sola generación anual, cuyos adultos viven a partir de julio, pero en primavera pueden encontrarse individuos hibernantes, pues la hibernación corresponde a los adultos. Vive sobre una amplia variedad de árboles y arbustos caducifolios.

Mírido de dimensiones más bien pequeñas, bastante brillante y con notable variabilidad cromática. Pertenece a un grupo de géneros que han estado sujetos a una cierta confusión en el pasado y a cambios taxonómicos recientes.

Es escasa en Gipuzkoa.



HETEROPTERA

MIRIDAE

## *Plagiognathus arbustorum arbustorum*

(Fabricius, 1794)

Luzera: 3,7-4,6 mm.

Bizi deneko landare erruderaletan oso zimitz aktiboa da hau. Mota horretako landareetan, gure aldean *Urtica dioica* (asuna) du gustokoen. Uda osoan zehar aurki daiteke eta negua arrautza bezala igarotzen du.

Banaketa handiko espeziea da, aspalditik ezaguna Europan, baina gure kontinentetik at ere bizi dena. Aldakortasun kromatiko handia aurkezten du, beltza izanik kolore nagusia Euskal Herrian arruntena suertatzen den forma edo aldaeran.

Gipuzkoan oso arrunta da.

Longitud: 3,7-4,6 mm.

Chinche mírido muy activo sobre las plantas ruderales donde vive. Entre estas plantas, en nuestra zona muestra preferencia por *Urtica dioica* (ortiga). Se encuentra a lo largo del verano y pasa el invierno en forma de huevo.

Especie de amplia distribución, bien conocida desde hace mucho tiempo en Europa, pero que también vive fuera de nuestro continente. Presenta una gran variabilidad cromática, siendo el color negro predominante en la forma más extendida por el País Vasco.

Es muy común en Gipuzkoa.

HETEROPTERA

MIRIDAE

## *Platycranus bicolor*

(Douglas & Scott, 1868)



Luzera: 3,5-4,4 mm.

Zenbait zuhaixka lekadun arantzatsutan bizi ohi da, batzuetan populazio ugariak aurkeztuz. Beti *Ulex* landareetan aurkitu da, non helduak ekainaren bukaera arte ez baitira agertzen, nahiz eta udazkenera arte ere luzatu. Beraz, landare-baliabide berbera ustiatzen duten beste espezie batzuen atzetik dator. Segur aski elikadura mistoa daramana, hau da, fitofagoa eta zoofagoa aldi berean.

Mirido berde txikia, *Orthotylus* generoaren antzekoa eta harekin ahaidetua. Banaketa murriztua Europan.

Gipuzkoan arrunta da.

Longitud: 3,5-4,4 mm.

Vvie en poblaciones a veces numerosas sobre diferentes leguminosas arbustivas espinosas. Se ha encontrado siempre en *Ulex*, donde los adultos no aparecen hasta finales de junio y pueden prolongarse hasta el otoño, sucediendo por tanto a otras especies de chinches no tardías que explotan el mismo recurso vegetal. Es muy probable que lleven una dieta mixta, es decir, fitófaga y zoófaga a la vez.

Pequeño mírido verde, parecido y emparentado con el género *Orthotylus*. Distribución europea reducida.

Es común en Gipuzkoa.

HETEROPTERA

MIRIDAE

## *Stenodema calcarata*

(Fallén, 1807)



Luzera: 5,8-7 mm.

Gramineoak aukeratzen ditu bizi eta elikatzeko, mota ezberdineko habitatetan. Urteko bi belaunaldi ditu: bata, udarakoa (helduak uztaila eta abuztuan), eta bestea, udazkenekoa; azken honetan, helduak irailean agertzen dira eta hurrengo udaberrira arte bizi dira, hibernatu ondoren.

Zimitz luzangak eta aldakortasun kromatiko handikoak dira, nahiz eta kolore-eredu jakin batzuk aurkeztu belaunaldiaren eta urtaroaren arabera. Honela, banako heldu berriak zurixkak izaten dira, hibernatu duten emeak berde bilakatzen dira eta, orokorrean, intsektu marroixkak dira.

Gipuzkoan oso arrunta da.

Longitud: 6,7-7,9 mm.

Vive y se alimenta de diversas gramíneas en diferentes tipos de hábitat. Presenta dos generaciones anuales: una estival (adultos en julio y agosto) y otra otoñal, cuyos adultos aparecen en septiembre y viven hasta la primavera siguiente, tras la hibernación.

Chinches alargados con una fuerte variabilidad cromática, pero con patrones bastante definidos de color dependiendo de la generación y la época del año. Así, los ejemplares adultos recientes son blanquecinos, las hembras hibernantes se tornan verdes en primavera, pero en general son insectos marronáceos.

Es muy común en Gipuzkoa.



HETEROPTERA

MIRIDAE

## *Stenodema laevigata*

(Linnaeus, 1758)

Luzera: 7,8-9,1 mm.
Generoaren beste espezieek bezala, helduek lurzoruaren orbelean eta goroldioan hibernatzen dute. Hala ere, belaunaldi bakarra aurkezten dute urteko. Hainbat gramineotaz elikatzen dira, zeinetan, bere itxurarengatik, ez baitira nabarmentzen.
Aldakortasun kromatiko handia, berde bizitik marroira doana, hain zuzen, generoaren beste ordezkari batzuetan bezala. *S. calcarata*ren antza morfologiko altua; espezie horretatik bereiz daiteke atzeko hanken femurretako arantzarik ezarengatik eta tamaina zerbait handiagoarengatik.
Gipuzkoan oso arrunta da.

Longitud: 7,8-9,1 mm.
Como las otras especies del género, los adultos hibernan entre la hojarasca y el musgo del suelo. Sin embargo, sólo presentan una generación anual. Se alimentan de un buen número de gramíneas, en las que, debido a su aspecto, pasan desapercibidos.
Alta variabilidad cromática que, como en otros representantes del género, va del verde brillante al marrón. Gran parecido morfológico con *S. calcarata*, de la que puede diferenciarse por la ausencia de espinas en los fémures posteriores y el tamaño algo mayor.
Es muy común en Gipuzkoa.



HETEROPTERA

LYGAEIDAE

## *Kleidocerys ericae*

(Horváth, 1909)

Luzera: 3,5-4,8 mm.
Helduak, hibernatzen dutenak, udaberri goiztiarrean agertzen dira, batzuetan oso kantitate handietan. Batez ere txilarrez elikatzen dira, bereziki *Erica arborea* eta *E. lusitanica* txilarrez, baina Gipuzkoan, horietaz gain, beste landare batzuetan ere (urkia, otea) aurkitu dira.
Espezie honen eta *K. resedae* espeziearen arteko bereizketa eztabaidagarria da. Bigarrena pixka bat handiagoa da eta *Betula*, *Alnus*, etab. bezalako zuhaitzak nahiago ditu. Bien banaketa-areak antzekoak dira Europan eta biak gai dira soinu karrankaria edo estridulatorioa sortzeko.
Gipuzkoan arrunta da.

Longitud: 3,5-4,8 mm.
Los adultos, que hibernan, hacen su aparición en la primavera más temprana, a veces en grandes cantidades. Se alimentan principalmente de brezos, en especial *Erica arborea* y *E. lusitanica*, pero en Gipuzkoa también han sido observados en otras plantas (abedul, argoma).
Existe discusión acerca de la separación de esta especie y *K. resedae*, que es algo mayor y prefiere los árboles de géneros como *Betula*, *Alnus*, etc. Ambas especies comparten áreas de distribución en Europa y son capaces de producir un sonido estridulatorio.
Es común en Gipuzkoa.

# 3. GERTAKARI GASTROENTOMOLOGIKOA HERNANIN
# 3er EVENTO GASTROENTOMOLÓGICO EN HERNANI

Pablo Bahillo de la Puebla

Hirugarren urtea dugu! Eta hobetzen jarraitzen dugu. Aurreko bi urteetan bezala, 2007ko martxoaren 17an Ugaldetxo Jatetxera hurbildu ginen (Hernani Goizuetarekin lotzen duen errepidearen 8. kilometroan), Gipuzkoako Entomologia Elkarteak deituta. Helburua mahai baten inguruan lagun giro ederrean ondo pasatzea zen, intsektuak genituelarik bileraren ardatz.

Gonbidatuak 14:00ak aldera agertu ginen, Hamelingo irudimenezko txistulari baten notak erakarriak izan bagina bezala. Batzuk hitzartutako ordua baino lehentxeago agertu

¡Ya van tres! Y seguimos mejorando. Como los dos años anteriores, el 17 de marzo de 2007, acudimos al restaurante Ugaldetxo (Km 8 de la carretera que une Hernani con Goizueta), convocados por la Asociación Gipuzkoana de Entomología, con el fin, nada desdeñable, de pasar un buen rato en compañía de buenos amigos, sentados a una mesa, con los insectos como eje vertebrador de la reunión.

Como atraídos por las notas de un imaginario flautista de Hamelin, fuimos apareciendo los convocados alrededor de las 14:00.




Zutik/de pie: Juan Diego González, Fernando Hiribarnegarai, Juan Antonio Soto con Alex Uranga, Pablo Bahillo de la Puebla, Mónica Menéndez, Jorge Luis Agoiz, Iñaki Recalde, Manuel Aguirresarobe, Felipe Calvo, Faustino Uranga, Ignacio Ribera, Iñigo Alzugaray, Joseba Dañobeitia eta Arantza Oyarbide. Makurtuta/agachados: Antonio Valencia, Roberto Fernández de Gamboa, Iñaki Alonso, Santiago Pagola, Antonio San Martín, Leticia Martínez de Murguía, Imanol Zabalegui, Carles Hernando eta Pedro Aguilera.



ziren, eta beste batzuk, neu tartean, geroxeago, Hernaniko kaleetan behar baino buelta gehixeago eginda. Jatetxean, Faustino, Xanti eta Imanol genituen zain, protokoloak agintzen duen bezala, iritsi ahala jendeari ongi etorria ematen.

Antolatzaileek, jangelara sartzeko ordua zela adierazi ziguten, puntual-puntual. Jangelara igo aurretik eguneko aurreneko ezustekoa izan genuen, Gipuzkoako Entomologia Elkarteko lagunek txartel bana



eman baitziguten gure izen abizenekin paparrean jartzeko, horrela errazagoa baitzen ezagunak ez genituen lagunak identifikatzea. Horrela, bakoitzak bere txartela paparrean zintzilik zuela, jangelara igotzeko dauden eskaileretara abiatu ginen. Eskaileretan gindoazela, eguneko bigarren sorpresa onarekin egin genuen topo, jangelarako bidea gomazko artropodoez baitzegoen markatu-

Algunos un poco antes de lo estipulado y otros, como el que suscribe, un poco más tarde, después de haber dado más vueltas de la cuenta por las calles de Hernani. En el restaurante nos esperaban Faustino, Xanti e Imanol, como maestros de ceremonia, recibiendo a los que poco a poco llegábamos al destino.

Con puntualidad británica los organizadores nos indicaron que ya era hora de acceder al comedor. Antes de acceder a la estancia, la primera sorpresa grata de la jornada, los amigos de la Asociación Gipuzkoana de Entomología habían preparado una tarjeta con su nombre para cada uno de los asistentes, de forma que resultara más fácil la identificación entre desconocidos. Así, con la identificación colgando de la solapa de cada uno de nosotros, nos dirigimos a las escaleras de acceso al comedor. En las escaleras nos dimos de bruces con la segunda sorpresa agradable del día, los organizadores, detallistas como pocos, nos habían marcado el camino al comedor con artrópodos de goma. A nuestros pies iban desfilando moscas, arañas, escarabajos, ortópteros y mariposas que parecían darnos la bienvenida de nuevo, dirigiendo nuestros pasos, escaleras arriba, hacia el comedor. Me vino a la mente el cuento de Pulgarcito. En poco tiempo nos reunimos en el comedor todos los pulgarcitos entomólogos. Ya arriba, un vino de bienvenida, algunos entremeses fríos y raciones de chorizo a la sidra calentito y delicioso, nos animaron a la charla distendida con amigos a los que hacía algún tiempo que no veíamos.

Recuerdo con especial cariño la cara de Alex hijo de Faustino y Mónica. Como nos miraba con la cara ingenua de un peponcete de 7 meses, parecía que entendiera lo que contábamos y que quisiera intervenir en nuestras conversaciones. No pudimos evitar dar la enhorabuena a Faustino por el hijo tan precioso que tenía a la vez que le tomábamos el pelo con aquello de las nuevas generaciones de entomólogos vascos y ese tipo de cosas que se dicen en estas situaciones.

A renglón seguido la comida. Como años

ta. Gure hanken aurrean jarrita zeuden euliek, armiarmek, kakalardoek, ortopteroek eta tximeletek ziruditen guri ongietorria ematera atera zirela, gure pausuak, eskaileretan gora jangelarantz gidatuz. Burura Erpurutxoren ipuina etorri zitzaidan. Denbora gutxian goiko jangelan elkartu ginen entomologo erpurutxo guztiak. Goian, ongi etorria emateko, ardoa, zizka-mizka hotz batzuk eta txorizoa sagardo erara eman zizkiguten, oso goxoak denak, eta aspaldian ikusi gabeko lagunekin hizketaldi lasai bat egiteko aukera paregabea izan genuen.

Xera berezi batekin gogoratzen dut Faustino eta Monicaren semea den Alexen aurpegia, nola begiratzen zigun 7 hilabeteko haur baten harridurazko aurpegiarekin. Gure hizketaldian sartu nahi zuela zirudien. Fauseri zorionak eman genizkion halako haur eder baten aita izateagatik eta, aldi berean, adarra jo genion hurrengo entomologo euskaldunek jarraipena izango dutelako.

Berehala, bazkaria iritsi zen, aurreko urteetan bezala zaporetsua eta merkea. Jatetxekoek pazientzia galanta izan zuten denok eskatu bitartean. Bertaratuak isildu eta zerbitzariari kasu egitea izugarrizko esfortzua izan zen. Horretaz gain, konpainia jartzen badugu... Gehiago eskatzerik ba al dago?

Bazkaria konturatzerako bukatu zen. Jatetxe horretan denbora oso erraz joaten da. Ia konturatu gabe postre garaia iritsi zen. Imanolek, Xantik eta Fausek, prestatuta zeukaten hurrengo sorpresa. Postrea Antonio Valenciak eramandako diapositibak ikusi bitartean jan genuen. Benetako artelanak, natura aitzakiatzat hartuta. Oso detaile polita izan zen eta, bide batez, adituak lehian jarri genituen, nork identifikatuko pantailan agertzen ziren intsektuak.

Kafea eta horri laguntzeko hartzen diren edari bizigarriek ematen duten adorearekin, Iñaki Rekaldek gogorarazi zigun mus partida bat geneukala jokatzeke, duela bi urte Imanol Zabalegik eta hau idazten ari denak irabazi zutenaren errebantxa. Zoritxarrez nik 19:00ak baino lehen etxean egon behar nuen bueltan, eta ezin izan genuen jokatu

atrás, sabrosa y económica. Los del restaurante derrocharon paciencia a raudales para poder completar la lista de pedidos. Conseguir que los asistentes interrumpiéramos nuestra charla para ir pidiendo los platos fue un esfuerzo titánico. Si añadimos la magnífica compañía ¿Hay quien de más?

La comida se nos pasó en un abrir y cerrar la boca. En este restaurante parece que el tiempo vuela. Sin darnos cuenta nos presentamos en los postres. Imanol, Xanti y



Faustino nos tenían preparada la tercera sorpresa. Los postres fueron acompañados con una proyección de diapositivas realizadas por Antonio Valencia. Auténticas obras de arte con la naturaleza como excusa. Fue un bonito detalle que nos sirvió para examinar a los especialistas de diversas materias que iban identificando sobre la marcha los insectos que iluminaban la pantalla.

Envalentonado por el café y las bebidas espirituosas que lo acompañaban, Iñaki Recalde recordó la necesidad de jugar una partidita de mus que lavara la afrenta sufri-





partida.

Beno, zoritxarrez, edo agian zorionez, arratsalde horretan Osasunako jokalariek izugarrizko jipoia eman zieten Athleticeko jokalariei 0-3 irabaziz. Partidua bukatu zenean, pentsatzen hasi nintzen zer gertatuko zen partida jokatu eta galdu izan bagenu (oso arraroa izanagatik). Hala ere, Iñaki, hau irakurtzen baldin baduzu, egon lasai, hurrengoan seguru asko gogor arituko baikara, kartak eskuan, Ugaldetxoko mahai inguruan.

Mila esker bertaratutako guztioi eta, bereziki, ekitaldi eder hori antolatu zenuten guztioi, Euskal Herriko egutegi entomologikoan nahitaezko hitzordu bilakatzen ari baita. Urte askoan jardungo ahal dugu honen inguruan!

Goraintziak denoi eta besarkada handi bat.

Pablo Bahillo de la Puebla

da un par de años antes a manos de Imanol Zabalegi y el que esto suscribe. Desgraciadamente yo tenía que estar de regreso en mi casa antes de las 19:00 y no pude jugar la partida.

Bueno, desgraciada o quizás afortunadamente, porque esa misma tarde el Athletic fue humillado por el Osasuna (0-3). Cuando acabó el partido no pude evitar pensar lo que habría sido de mí si aquella tarde me quedo a jugar al mus y, aunque muy improbable, perdemos. No obstante, Iñaki, si lees esto, estate tranquilo, quizás en la siguiente ocasión podamos batirnos, cartas en mano, sobre la mesa del Ugaldetxo.

Mil gracias a los asistentes y especialmente a los organizadores de tan magno evento,



que ya se va convirtiendo en una cita obligada en el calendario entomológico del País Vasco. Ojalá podamos seguir comentándolo muchos años más.

Saludos a todos y un fuerte abrazo.

Pablo Bahillo de la Puebla




Restaurante
**UGALDETXO**
Jatetxea

Ereñozu auzoa - Tel.: 943 55 02 40
20128 **HERNANI** (Gipuzkoa)




Liburuaren azala.
Portada del libro.

2007ko otsailaren 8an Bilbora joan ginen ESCARABAJOS DE VIZCAYA liburuaren aurkezpenera, Pablo Bahillo de la Pueblak (liburuaren idazleak) gonbidatuta. BBK Fundazioak argitaratu berri du argazki asko eta testu ulerterrazak dituen liburu dibulgatzaile polit hau, Bizkaiko gaiak – Temas vizcaínos bildumaren 378-379 zenbakia osatzen dutelarik.
Kakalardoen mundu harrigarrira hurbiltzen gaitu egileak.



Espero bezala, Pablok aurkezpen aparta egin zuen.
Como era de esperar de Pablo, la presentación fue magnífica.

El 8 de febrero de 2007 acudimos a Bilbao, a la presentación del libro **ESCARABAJOS DE VIZCAYA**, invitados por su autor Pablo Bahillo de la Puebla.




Aurkezpenaren hasiera.
Comienzo de la presentación.

Como número 378-379 de la colección Bizkaiko gaiak - Temas vizcaínos, BBK ha editado este bonito libro, divulgativo, con cantidad de fotografías y texto muy sencillo.
El autor nos acerca al maravilloso mundo de los escarabajos.



Bertaratu ziren batzuei liburuak sinatzen.
Firmando libros a algunos asistentes.

# HAN IZAN GINEN / ESTUVIMOS ALLÍ

**Gipuzkoako Entomologia Elkartea**

2007ko martxoaren 12tik 24ra.

Iruñeako La Morea merkatal zentruan, Gipuzkoako Entomologia Elkarteko partaide batzuek antolatutako Intsektu erakusketa.

Del 12 al 24 de marzo de 2007.

Exposición de Insectos realizada por varios miembros de la Asociación Gipuzkoana de Entomología en el centro comercial La Morea de Pamplona.




















# HEMEROTEKA

## Desarrollan en Navarra un bioinsecticida para invernaderos de Almería

PAMPLONA. La Asociación de Empresarios Cosecheros-Exportadores de Productos Hortofrutícolas de Almería aplicará en los invernaderos de la provincia andaluza un bioinsecticida natural, no contaminante e inocuo para el ser humano, desarrollado en la Universidad Pública de Navarra (UPNA).

La asociación, entidad sin ánimo de lucro creada en 1977 y que agrupa a 10.000 agricultores almerienses, ha firmado con la UPNA un contrato para la licencia exclusiva, tanto de fabricación como de utilización, de este bioinsecticida. A cambio, la UPNA recibirá 180.000 euros y, durante un periodo de veinte años, percibirá el 4,2% de las ventas totales del producto, lo que supondrá la mayor contraprestación económica percibida por el centro docente en toda su historia por una de sus patentes.

El bioinsecticida se basa en un «baculovirus» que afecta exclusivamente a la gardama (*Spodoptera exigua*), un lepidóptero que es el responsable de la plaga que afecta a cultivos almerienses como el tomate, el pimiento, la sandía, el melón, el pepino o la berenjena, entre otros. EFE

EL DIARIO VASCO 27/03/2007

Esto es un hombre que está con un matamoscas en su casa. De repente entra su mujer y dice:
- ¿Qué haces?
- Matar moscas.
- ¿Has matado alguna?
- Sí, dos machos y tres hembras.
- ¿Y cómo sabes si son machos o hembras?
- Pues porque dos estaban apoyadas en el vaso de cerveza, y tres en el teléfono.

BRAVO Julio/2007

kutxa

# INTSEKTUEKIN JOLASEAN
# JUGANDO CON INSECTOS

Faustino Uranga

Lurrean zazpi kakalardo jarri ditugu irudian ikusten den bezala. Egin beharrekoa zera da: hiru marra zuzenen bidez irudia zazpi zati egin beharko dugu eta zati bakoitzean kakalardo batek egon beharko du.



Siete coleópteros se han colocado en el suelo tal como se ve en la figura. El reto consiste en dividir la zona mediante tres líneas rectas en siete partes, de tal forma que en cada una de ellas haya un escarabajo.



Giltza itxura duen irudi bat osatzen dute hamar beldar horiek. Hona hemen galdera: Nora aldatuko ditugu lau beldar giltza itxurako irudia hiru hiruki bilakatzeko?

Diez orugas se divierten formando una figura en forma de llave. Ahora te preguntan ¿cómo deben de cambiar de lugar cuatro orugas de forma que queden formando tres cuadrados...?

Aurreko zenbakiko erantzunak/ Respuestas al número anterior:







El avispón gigante japonés
*Vespa mandarinia japonica*
puede medir entre 27 y 45
milímetros; increíblemente,
¡las reinas alcanzan unos
5,5 cms de longitud!
Su aguijón mide unos 6,35 mm.
y su picadura se puede sentir
como un clavo ardiendo.

El insecto más pesado
que figura en los registros
de los entomólogos es una
hembra preñada del
ortóptero Weta gigante
(Deinacrida fallai) que
alcanzó un peso de
71 gramos.

***Las mariposas no pueden volar si su temperatura corporal es inferior a 30ºC.***



**El animal con el cerebro más grande en proporción con su talla es la hormiga.**


AIRE, AIRE !!!
EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia